

ESKOLA ARTEKO ANTZERKIAREN XXVIII. LEHIAKETA 2024-2025 XXVIII CERTAMEN DE TEATRO ESCOLAR 2024-2025



Beste urte batez, Eskola Antzerkiko Lehiaketa antolatu du Bilboko Udalaren Kultura eta Gobernantza Sailak —aurtengoa XXVIII. edizioa da—.

Ekimen horrekin, jarduera-programan antzerkiaren mundua lehenesten duten ikastetxeen lana babestu gura du Bilboko Udalak.

Epaimahai espezializatu batek hautatuko ditu bai lan irabazleak, bai Arriaga antzokian egingo den amaiera-gala handian antzeztuko direnak, mundu guztiarentzat.


Lehiaketan izena emateko azken eguna **2025eko martxoaren 14a** izango da. Parte hartu nahi duzuen taldeok, jarri harremanetan gurekin:

Bilboko Udala-Kulturako Zuzendaritza:
94 420 48 70 / cultura@bilbao.eus

Adeitasunez,

Gonzalo Olabarria

Bilboko Udaleko Kultura eta Gobernantza Saileko zinegotzia



Un año más, el Área de Cultura y Gobernanza del Ayuntamiento de Bilbao convoca la XXVIII edición del Certamen de Teatro Escolar de Bilbao.

Con este certamen, el Ayuntamiento de Bilbao quiere apoyar el trabajo de los centros escolares que priman el mundo del teatro dentro de su programa de actividades.

Un jurado especializado seleccionará los montajes ganadores y seleccionará los que se representarán, para todo el público en general, en la gran gala final en el teatro Arriaga.

La fecha límite de inscripción para participar en el Certamen será el **14 de marzo de 2025**. Los grupos interesados podéis contactar con:

Ayuntamiento de Bilbao-Dirección de Cultura:
94 420 48 70 / cultura@bilbao.eus

Atentamente,

Gonzalo Olabarria

Concejal de Cultura y Gobernanza del Ayuntamiento de Bilbao

OINARRIAK

1. Bilboko Udalaren Kultura Sailak Bilboko Eskola Arteko Antzerki Lehiaketaren XXVIII. edizioa deitu du, beren jardueren programaren barruan antzerkiari lehentasuna ematen dioten ikastetxeen lanari babesa emateko. Hauek dira helburuak:

- Umeentzako eta gazteentzako antzerki-programazio finkoa bultzatzea urian.
- Antzerkirako zaletarasuna sortzea umeengan eta gazteengan.
- Familiako kulturaren arloko kontsumoan parte har dezatela familiek.
- Eskolekin arte eszenikoen arloan egiten den lana bultzatzea.
- Kultur hezkuntzan, oro har, eta bereziki antzerkigintzan ikastetxeek egiten duten lana aitortzea eta ospea ematea.

2. Ikastetxeek aurkezten dituzten antzerki-lanek gai librea izango dute eta euskaraz, gaztelaniaz edo beste edozein hizkuntzatan egingo dira; testurik gabekoak ere izan daitezke. Eskolaren arloko lehiaketa eta, beraz, hezigarria izanik, garrantzitsua da lanaren gaiak eta bertan zuzentzat erakusten diren pertsonen ereduak, jokabideak eta gizarteak ez joatea ikastetxean lantzen diren zeharkako balioen aurka. (Horrek ez du esan nahi ezin direla antzeztu jokabide sexistak, bortitzak, ingurumenaren gehiegizko esplotazioa erakusten dutenak edo edozein erakoak – eszenak dena onartzen du –, baina ez da onartuko jokabide horiek eredu zuzentzat edo jarraitu beharrezkotzat agertzea).

BASES

1. El Área de Cultura del Ayuntamiento de Bilbao, convoca la XXVIII edición del Certamen de Teatro Escolar de Bilbao con la intención de apoyar el trabajo de los centros escolares que priman el mundo del teatro dentro de su programa de actividades, y de lograr los siguientes objetivos:

- Potenciar una programación teatral para niñas, niños y jóvenes estable en la ciudad.
- Crear afición al teatro entre niñas, niños y jóvenes.
- Implicar a la familia en el hábito de consumo cultural familiar.
- Potenciar el trabajo con las escuelas en el campo de las artes escénicas.
- Dotar de reconocimiento y prestigio al trabajo que los diferentes centros escolares realizan en educación cultural, en general, y en la teatral, en particular.

2. Las obras de representación teatral que presenten los centros escolares serán de tema libre y en euskera, castellano, cualquier otro idioma o sin texto. Al ser un certamen de ámbito escolar y, por tanto, con carácter educativo, es importante que, tanto la temática de la obra, como los modelos de personas, comportamientos y sociedades presentados como correctos en la misma, no atenten contra los valores transversales que se trabajan en el centro. (No quiere esto decir que no se puedan representar comportamientos sexistas, violentos, de sobreexplotación medioambiental o de cualquier índole – la escena lo admite todo –, pero no se admitirá que estos comportamientos se presenten como modelos correctos o a imitar).

Antzezpentzat joko da edozein erako “lan eszenikoa” eta edozein modalitate onartuko da: antzerki klasikoa, mimoa, txotxongiloa, dantza antzerkia, happening-a, performancea, kaleko antzerkia, antzerki ikusezina, inprobisazioa, akrobazia, zirkua... edo horien nahasteka bat.

3. Bilboko udalerrian dauden ikastetxeek hartu dezakete parte, haur-hezkuntza, lehen hezkuntza, DBH eta batxilergoko ikasleak. Lanak ikasgelan edo eskolaz kanpoko jardueretan antola daitezke. Lehiaketa honetatik kanpo geratuko dira dantza, antzerki edo bestelako akademiak edo eskolak, bai eta antzerkiaren arloko edozein ikastaro edo tailer ere, ez badauka loturarik ikastetxe batekin.

4. Lanaren alderdi teknikoetan (argiak, soinua, arropak, eszenografia, atrezzo, errejidore-lanak...) helduak aritu daitezke; hala ere, modu positiboan baloratuko da ikasleek hartzea lan horien ardura. Irakasleak, gurasoak edo pertsona helduak ezingo dira aritu aktore modura lanean.

5. Gehienez ere, 20 minutu iraungo du lanak. Iraupen hori gainditzen duten lanak lehiaketatik kanpo utz daitezke, antolatzaileek eta epaimahaiak hala erabakitzen badute. Lehiaketatik kanpo utzi ez arren, ez dute saririk jasotzeko aukerarik izango.

6. Ikastetxe bakoitzak hiru lan aurkeztu ditzake, gehienez ere. Lan bakoitzak kide eta antzezle-zerrenda desberdinak izango ditu.

7. Lehiaketan parte hartu ahal izateko, izena emateko azken eguna **2025eko martxoaren 14a** izango da. Inskripzio hori zelan egin jakiteko, Bilboko Udalaren Kultura Zuzendaritzarekin harremanetan jartzea gomendatzen da, telefonoz (94 420 48 70) edo mezu elektroniko baten bidez (cultura@bilbao.eus).

Por representación teatral se entenderá cualquier tipo de “trabajo escénico”, teniendo cabida cualquier modalidad: teatro clásico, mimo, títeres, danza teatro, happening, performance, teatro de calle, teatro invisible, improvisación teatral, acrobacia, circo... o una mezcla de las mismas.

3. Sólo podrán presentarse los centros escolares situados dentro del término municipal de Bilbao que tengan alumnado de enseñanza infantil, primaria, ESO y bachillerato. Las obras podrán organizarse desde el aula o desde las actividades extraescolares. Quedan excluidas de este certamen las academias o escuelas de danza, teatro etc., así como cualquier tipo de curso o taller de tipo escénico, ya sea público o privado, no vinculado a un centro escolar.

4. Está permitida la participación y la realización en los aspectos técnicos de la obra (iluminación, sonido, vestuario, escenografía, atrezzo, regiduría...) de personas adultas; aunque se valorará positivamente que estas tareas sean asumidas por el alumnado. La participación del profesorado, padres, madres o personas adultas como actores o actrices en la obra no está permitida.

5. La duración de las obras no será en ningún caso superior a 20 minutos. Aquellas obras que superen esta duración podrán ser excluidas del certamen a criterio de la organización y el jurado y, si no lo fueran, no podrán ser premiadas.

6. Cada centro solo podrá presentar un máximo de tres obras, con diferentes componentes y elencos en cada una de ellas.

7. La fecha límite de inscripción para participar en el Certamen será el **14 de marzo de 2025**. Para más información sobre cómo realizar esa inscripción se podrá contactar con la Dirección de Cultura del Ayuntamiento de Bilbao por teléfono (94 420 48 70) o mail (cultura@bilbao.eus).

8. Sariak emateko, alderdi eszenikoak eta hezkuntzakoak hartuko dira kontuan.

Guztira sei sari emango dira, zerrendaren arabera, eta epaimahaiak accesit bakarria emateko aukera dauka:

- Lehen Hezkuntzako lanik onena (300 €).
- Bigarren Hezkuntzako lanik onena (300 €).
- Eszenako lanik onena, oro har (300 €).
- Proposamen eszenikorik originalena (300 €).
- Lanaren alderdi teknikoen konponbiderik onena (300 €).
- Antzerkia, dantza, zirkua edo beste edozein diziplina eszenikoren modalitateak berreskuratzeko lanik onena (300 €).
- Epaimahaiak erabakitako accesit bat, sarien zerrendan jasotzen ez diren alderdiak saritzeko (300 €).

Saria jaso ahal izateko, Arriaga Antzokian egingo den azken galan lana antzeztea eskatuko da, lan hori aukeratu bada.

Sariak eman barik gera daitezke, epaimahaiak hala erabakitzen badu.

9. Aurkezten den lan bakoitzeko 300 euroko kopuru finkoa emango zaie lehiaketa honetan parte hartzen duten ikastetxe guztiei, muntaia egiteko laguntza modura.

Dirulaguntza jaso ahal izateko, ikastetxeek Arriaga Antzokiko azken galara joan beharko dute diplomak jasotzera.

Hala ere, lehiaketaren aurreko edizioetan baino parte-hartzaile gehiago badago aurten eta laguntza horien aurrekontua gainditzen bada, kopurua murriztu egin ahal izango da eta aurrekontuan aurkeztutako lan guztien artean hainbanatuko da.

8. Los premios que se concedan se otorgarán en función de aspectos escénicos y educativos.

Se otorgarán un total de seis premios, según palmarés, y la posibilidad de un único accésit de libre designación por parte del jurado, todos ellos de igual cuantía:

- Mejor trabajo de enseñanza primaria (300 €).
- Mejor trabajo de enseñanza secundaria (300 €).
- Mejor trabajo escénico global (300 €).
- Propuesta escénica más original (300 €).
- Mejor resolución de los aspectos técnicos de la obra (300 €).
- Mejor trabajo de recuperación de modalidades de teatro, danza, circo o cualquier otra disciplina escénica (300 €).
- 1 accésit de libre designación por parte del jurado para premiar aquellos aspectos no recogidos en el palmarés (300 €).

Para poder recibir el premio en metálico, se exigirá representar la obra en la gala final del Teatro Arriaga, si ha sido seleccionada.

Los premios pueden quedar vacantes si el jurado así lo considera oportuno.

9. Se otorgará una cantidad fija de 300 €, por cada obra presentada, a todos aquellos centros que participen en este certamen como ayuda para la realización de sus montajes.

Para poder recibir la ayuda económica, se exigirá a los centros la asistencia a la gala final del Teatro Arriaga a recoger los diplomas conmemorativos.

No obstante, si como consecuencia de un incremento en el número de obras participantes en el Certamen con respecto a pasadas ediciones se superase la dotación presupuestaria para estas ayudas, dicha cantidad podrá disminuir, prorrateando el presupuesto disponible entre las obras presentadas.

10. Arte eszenikoetako eta adierazpenaren pedagogiako adituek osatuko dute epaimahaia eta ikastetxe bakoitzera joango dira antzezlanak ikustera. Emankizun horiek publikoak izango dira eta ikastetxeetara joateko egutegia zozketaz zehaztuko da. Ikastetxeak ez badauka areto egokirik, emankizunak udalategi batean egin beharko dira, inoiz ez espazio pribatu batean.

11. Epaimahaiak, ikasturte amaieran izango den gala handian antzetzuko diren lanak aukeratzeko ditu saritutakoen artean. Lehiaketan parte hartzeak ikastetxe bakoitzeko gutxienez ordezkari bat gala horretara joatera behartzen du, diplomak jasotzeko.

Galarako gonbidapenak bere garaian adieraziko diren egun eta orduetan egongo dira eskuragarri.

12. Epaimahaiak bere gain hartu du oinarri hauetan azaldu gabeko gaiak erabakitze eskubidea eta bere erabakiak aldaezinak dira.

13. Parte hartuko duten **ikastetxe publikoek**, parte hartzeagatik ematen den laguntza eta —hala badagokio— sari ekonomikoa jaso baino lehen, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- a) Erantzukizunpeko adierazpen bat, zeinaren bidez ziurtatuko baitu ez dela aurkitzen Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren (38/2003) 13. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen (4/2005) 24.2 artikuluan onuradun izateko aurreikusitako debekuetan. (I ERANSKINA).
- b) Aurretiaz Bilboko Udalaren ordainketarik jaso ez bada —kontzeptua edozein dela ere— eta horren ondorioz Hartzekodunen Erregistroan inskribaturik ez badaude, “Hartzekodunen fitxa” aurkeztu beharko dute (emango zaien ereduaren arabera) behar bezala beterik, eta hari NAN/IFK/pasaportea eta diru-sarrera jasotzeko erabili nahi duen banku-kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen edozein dokumentu erantsi beharko zaizkio.

10. El jurado, que estará compuesto por personas expertas en artes escénicas y pedagogía de la expresión, se trasladará a cada uno de los centros para ver las representaciones. Esas representaciones serán públicas y el calendario de visita a cada centro se fijará por sorteo. En caso de que el centro educativo no cuente con un Salón de Actos adecuado, las representaciones deberán hacerse en un Centro Municipal, nunca en un espacio de titularidad privada.

11. El jurado seleccionará, entre las obras galardonadas, las que finalmente se representarán en la gala final a celebrar en el Teatro Arriaga. La participación en el Certamen obliga a acudir al menos a un representante de cada centro a esta gala, para la recogida de diplomas.

Las invitaciones para la gala estarán disponibles en las fechas y horarios que se especificarán en su momento.

12. El jurado se reserva el derecho a decidir cuestiones no previstas en estas bases y sus decisiones serán inapelables.

13. Los **Centros públicos** participantes deberán aportar, con carácter previo a la recepción de la ayuda por participar y, en su caso, del premio económico, la siguiente documentación:

- a) Declaración responsable de no estar incurso en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria prevista en el art. 13 de la ley 38/2003, General de Subvenciones, ni en la prevista en el art. 24-2º de la ley 4/2005 para la igualdad de mujeres y hombres. (ANEXO I).
- b) En caso de no haber recibido nunca antes un pago del Ayuntamiento de Bilbao por cualquier concepto y, por lo tanto, no estar inscritas en el Registro de Acreedores, deberán presentar, debidamente cumplimentada, la “Ficha de Acreedores” (según modelo que se les facilitará) a la que se le adjuntará el DNI/NIF/Pasaporte, y cualquier documento por el que quede acreditada la titularidad de la cuenta bancaria donde se desea recibir el ingreso.

Parte hartuko duten **ikastetxe pribatuek eta Gurasoen Elkargoek**, parte hartzeagatik ematen den laguntza eta —hala badagokio— sari ekonomikoa jaso baino lehen, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- a) Erantzukizunpeko adierazpen bat, zeinaren bidez ziurtatuko baitu ez dela aurkitzen Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren (38/2003) 13. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen (4/2005) 24.2 artikuluan onuradun izateko aurreikusitako debekuetan. Era berean, ziurtatuko du diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Arautegia onartu zuen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 18. eta 19. artikuluan ezarritakoa betez, betetzen dituela zerga-arloko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak. (II. ERANSKINA).
- b) Aurretiaz Bilboko Udalaren ordainketarik jaso ez bada —kontzeptua edozein dela ere— eta horren ondorioz Hartzekodunen Erregistroan inskribaturik ez badaude, “Hartzekodunen fitxa” aurkeztu beharko dute (emango zaien ereduaren arabera) behar bezala beterik, eta hari NAN/IFK/pasaportea eta diru-sarrera jasotzeko erabili nahi duen banku-kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen edozein dokumentu erantsi beharko zaizkio.

14. Deialdian parte hartzeak Oinarri hauen erabateko onartzea suposatzen du. Oinarrietan araututa ez dagoenerako, ordezkio izaeraz, Bilboko Udalaren eta zuzenbide publikoko bere erakundeen eta entitateen deialdiaren bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra aplikatuko da. Ordenantza hori 2016ko ekainaren 30ean onartu zuen Bilboko Udaltzarrak eta 2016ko uztailaren 20an argitaratu zen BAOn (138. zenbakia).

Los **Centros privados y AMPAS** participantes deberán aportar, con carácter previo a la recepción de la ayuda por participar y, en su caso, del premio económico, la siguiente documentación:

- a) Declaración responsable de no estar incurso en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria prevista en el art. 13 de la ley 38/2003, General de Subvenciones, ni en la prevista en el art. 24-2º de la ley 4/2005 para la igualdad de mujeres y hombres; así como que cumple con las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social exigidos en los art. 18 y 19 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 30/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones. (ANEXO II).
- b) En caso de no haber recibido nunca antes un pago del Ayuntamiento de Bilbao por cualquier concepto y, por lo tanto, no estar inscritas en el Registro de Acreedores, deberán presentar, debidamente cumplimentada, la “Ficha de Acreedores” (según modelo que se les facilitará) a la que se le adjuntará el DNI/NIF/Pasaporte, y cualquier documento por el que quede acreditada la titularidad de la cuenta bancaria donde se desea recibir el ingreso.

14. El hecho de participar en la convocatoria supone la íntegra aceptación de estas Bases. En lo no previsto en estas Bases registrará con carácter supletorio la “Ordenanza general reguladora de las Bases para la concesión de subvenciones mediante Convocatoria por el Ayuntamiento de Bilbao y sus organismos y entidades de derecho público”, aprobada en fecha 30 de junio de 2016 por el Excmo. Ayuntamiento Pleno y publicada en el BOB nº 138, de 20 de julio de 2016.

**ESKOLA ARTEKO
ANTZERKIAREN
XXVIII. LEHIAKETA
2024-2025
XXVIII CERTAMEN DE
TEATRO ESCOLAR
2024-2025**

**bilbao
eszena**
baliabide eszenikoen zentroa
centro de recursos escénicos

B
Bilbao